



Gorputza eta burua, burua eta gorputza.- "Mens sana in corpore sano" dio greziar esaera ospetsuak. Baina hori ez da beti hala izaten, ostiral ilunabarrean Organik dantza eta antzerki talde donostiarrak Manuel Lekuonan erakutsi zuen bezala. Lau neska gazte, dotore, gihartsu eta lirainek burua galtzeraino egiten dute ari-keta fisikoa, hori da "Incorpore Sano" emanaldiaren muina. Antzerki eta dantza artean kulunkan ibili zen obra, gorabehera handiekin. Nolabait bi polo ukitu zituen, kirola egin eta euren burua sasoian ikustearen euforia totaletik, gehiegikeriek eragindako depresio sakoneneraino. Azken finean, neska hauek gorputzaren gatibu bihurtu gaitzkeela erakutsi zuten. Beti gehiago, indartsuago, ederrago, finago nahi izate horrek dakartzan ondorio makurrak islatu zituzten herritarren aurrean. Zoriontasunaren sekretua neurrian dagoela irakatsi zuten edo greziarrek esango luketen moduan, orekan.

3 PARTE-HARTZEA Tximistarreta plaza herritarren eskura

Lasarte-Oriako Udalak herritarrek ere hirigintzako proiektuetan zer esana izatea nahi du eta horretarako Tximistarreta parkean parte-hartze prozesu bat jarriko du abian. Udalak herritarrek eta elkar-teez plazari buruz dituzten iritziak, ideiak eta proposamenak jaso nahi ditu eta horren arabera, proiektu bat diseinatuko da.

5 DANTZARI TXIKI XXV. Dantzari Txiki eguna igandean

Aurten XXV. urteurrena bete du Dantzari Txiki Egunak. Eguraldi bikaina lagun, sei talde aritu dira Erketzekin batera, Faltzesko Makaia, Urretxuko Lurra D.T., Errenteriako Ereintza D.T., Andoingo Urki dantza taldea eta Lasarte-Oriako Kukuka antzerki eta dantza eskolako txikiak. Guztien artean giro ezinhobe sortu dute.



Ostiralean maiatzaren 31an, ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Jarrai gaitzazu txintxarri.info web orrialdean edo facebook edo twitter kontuetan.



IEFPS USURBIL GLHBI

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra



Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa



Energia eta ura

Mantenimendua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Adituak dio



Xabier Andonegi
Apaiza

Hileta erlijioari loturik ezagutu dugu ia beti. Hileta esatean ordea, hil danari dagokion agurra esan nahi da eta hori, agurra, era askotara egin ohi da munduan eta kultura eta gizarte ezberdinetan. Ez da kulturarik izango hildakoaren agurra egin ez duenik.

Heriotza gauza serioa da; guk bizi dugunaren bukaera eta horrek gizakioi, galdera asko sortzen dizkigu. Gizakia hilko dela dakien bizidun bakarra da eta jakite horrek, erantzunak bilatzen ditu. Zergatiak eta erantzunak. Zergatik bizi naiz eta zertarako da nire bizitza hau? Zergatik urte gutxi batzuk bakarrik eta ez betirako? Berdin al da edozein erara bizitzea ala ondorioak ditu? Inori konturik eman behar al dizkiot?

Beste gauza bat da agurra. Hileta agur bezala ulerturik eredu asko izan dira eta ditugu, erlijiosoak eta zibilak. Hil dena hilik dagoenez, agian berdin zaio gure agurra, baina guri ez, gu gara bizitzen jarraitzen dugunak eta gauzak nola egiten ditugun da ikusi eta baloratzten dena.

Greziar klasikoek eta gero erromatarrek "danazio memoriae" zigorrak gogorrena erabiltzen zuten hildako batzuekin, beraien etsaiekin. Zer "ospakizun" mota zen? Pertsona bat mundu honetan izan denik ere ez gogoratzea, inolako arrastorik ez uztea eta horrela, betirako ahaztea. Hau zigorra zen ez saria eta erakusten du hiletan zentzua. Hiletak sariak dira, aitortzak, errokonozimenduak, eskertzak... eta hortxe dago gure izatearen alderdirik ederrena, bestean onak ezagutu eta eskertzean. Nola egin hori? Erak aldakorak dira, kulturak eta ideologikoak, aukerak. Erlijioari atxikitzeak bizitza "Misterium" bezala ulertzea esan nahi du. Erljiorik gabe edo "zibilak", geure mugen barnean, izate hilkorra onartzea. Aukerak dira.

Zorion agurrak



Leire eta Sara
ZORIONAK bikote!!! Muxu Potolo pila familia guztiaren partetik!



Nerea
Zorionak etxeko printzesari! Zazpi txokolatezko muxuak jaso etxekoan partetik



Angel eta Jon
Zorionak bikote! Muxu handi bat familiaren partetik.



Ekhi eta Aizpea
Zorionak preziosos!! Ondo pasa zuen urtebetetzean, familia guztiaren partetik. Asko maite zaituztegu.



Irati
Zorionak bihotza! 8 muxu handi handiak zure aitatzu, amatxo eta Asierren partetik!



Aiora
Zorionak panpoxa! Muxu asko zure 8. Urtebetetzean familiaren partetik.

Hitz eta pitz

Zer nolakoa izan behar luke azken agurrak?



Sara Carte
Gaur egun, oraindik, hiletak elizan egiten dira; baina, nik uste, gure belau-naldiari une hori iristen zaionean, hileta zibilak egitera pasatuko garela, zalantzarik gabe. Hasita dago, jada, aldaketa eta, denborarekin, joera hori nagusituko da. Nire eta nire ingurukoentzat hori nahiko nuke: lagunarteko agurra, bai, baina, elizarekin, guk, jadanik, ez daukagu zer ikusirik.



Joxerramon Mendizabal
Zer nahi duzu esatea... bakoitzak pentsatu beharko du, zer nahi duen bizitzaren amaierarako, ikasi duenaren eta jaso duen edukazioaren edota hezkuntzaren arabera. Bakoitzak berea, hau da, norberak ikusiko du, bere azken agurra nola egin nahi duen. Nik oraingoz ez dut pentsatu ere egin, ez nau horrek batere kezkatzen. Etorzen denean, etorriko da, eta kitto.



Marivi Abreu
Ez dut hiletarik nahi, nire adineko denen antzera, mojen artean eta kristautasunaren baitan hezitakoa naizen aren. Ez ditut gustuko. Zibila ere, azken finean, hileta bat da. Nik ez nuke ezer nahi, niregatik negar egin nahi duenak negar egin dezala eta kitto. Ez nuke hilobirik ere eduki nahi. Nire asmoa da, bizitzatik pasa naizen bezala, pasatzea heriotza ere. Oihartzun handirik gabe.



Jesus Artetxe
Ni neu kristau fededuna naiz; gero, hain praktikan-tea ez banaiz ere, eta, beraz, niretzat ez, baina, hileta zibilak egitea ondo iruditzen zait. Agurra horrela egin nahi duenarentzat, ondo dago, aukera hori egotea. Bakoitzak nahi duena egin dezala. Nirena, pentsatzen dut, betiko antzekoa izango dela, hileta bat, beste ospakizun edo agur handirik egin gabe. Aparteko gauzarik ez.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I., Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Peko Aizpitarte, Edu Galardi

Informatioa:
Xabier Arnoz

PARTE HARTZEA

Tximistarreta plazaren erabilera aztergai

Iritziak, ideiak eta proposamenak jasoko ditu Udalak

Lasarte-Orian urbanistikoki aldaketa ugari gertatu da azken urteetan. Eraiki diren etxebizitzekin batera, plaza eta kale berriak sortu dira. Lasarte-Oriako Udalak herritarrek ere hirigintzako proiektuetan zer esana izatea nahi du eta horretarako Tximistarreta parkean parte-hartze proiektu bat jarriko du abian.



Egun Tximistarreta parkean zelaia hazten ari da. Uztailean erabili ahaliko da.

TXINTXARRI

Ostiralean, Parte-hartze saileko Alaitz Mendizabal zinegotziak eta Larraitz Sarobe teknikariak azaldu zuten Tximistarreta plazako proiektu berriaren pausoa.

Udaleko Parte-hartze saileko ordezkariak azaldu legez, hirigintzako espazio guztien definizioa, historikoki, gutxi batzuen esku egon da, eta ia beti maila teknikoan bakarrik landu dira.

Baina, haien hitzetan, garaiak aldatzen ari dira, herritarren parte-hartzeak gero eta garrantzi handiagoa du herriko erabakietan, Tximistarreta plaza izena jartzeko esate baterako. "Beraz, guztiz logikoa da hirigintza bezalako esparru batean ere demokratizazio-prozesu bat gauzatzea."

Honetaz gain, etorkizuneko joerekin koherentea den

proiektua gauzatzeko asmoz, "herritarrekin eta herriko errealitatearen eta bizitzaren parte diren bestelako eragile, elkarte eta bizilagunekin denontzat izango den Tximistarreta gunea proiektu partizipatibo baten bidez aurrera eramatea da gure nahia" adierazi zuten.

Pausoak

Era honetara, Tximistarreta plazaren erabilera zehazteko hiru pauso proposatzen ditu Udalak.

Lehenik, azpiegiturak ezarri eta parkea jatorri-puntu batean kokatu du Udalak, hau da, zelaia ezarri da.

Bigarren pausoa, ekaina eta uztaile bitartean, jendarteko ikerketa aplikatueta aditua den enpresa batekin egingo den parte-hartze proiektua da. "Herritarren beharretara egokitu behar da, haien laguntzarekin. Gune

horren inguruko iritziak, ideiak eta proposamenak jasoko dira, eta horien gainean egingo den proiektua. Lasarte-Oriako herritarrekin eta ezaugarri ezberdinak dituzten taldeekin egingo da".

Azkenik, irailetik aurrera, ikerketa horren ondorio guztiak izanda, Udaleko bulego teknikoak datu horien arabera proiektu bat diseinatuko du. "Lanak epe motzean burutzekoak izango direlakoan gaude. Eta, horrela, zirkulua itxiko dugu, denok gozatu ahaliko dugun parke batekin," adierazi zuten.

Hala ere, uztailean parkea herritar guztientzat zabalduko dela aurreratu zuten, "zelai eder bat izango dugu erdialdeko leku pribilegiatu batean. Eguzkia hartzeko, kirola egiteko, irakurtzeko edo nahi denerako".

MUSIKA

SuBerriren kontzertua Andoainean

Lasarte-Oriako SuBerri Akordeoi orkestrak Andoainean kontzertua eskainiko du maiatzaren 31ean, ostirala, 20:00etan.

Euskalduna Andoaindarra futbol elkartearen 90. urteurrenoko ekimenaren baitan eskainiko du emanaldia eta honetan Goikouria zuzendariak Bach, Bizet, Piazzola, Chueca, Beethoven eta Derbenko-ren piezak hautatu ditu. Amaieran elkartearen ereserkia joko dute Alberto Agirre Abesbatzako kideen ahotsak lagun.

Apirilean Donostiako Antiguoa auzoan eskaini zuen taldeak kontzertua Baso Etxea elkarteak antolatuta eta Mare de Deu del Turó de Montcada y Reixac de Barcelona eta SUMMA Aldapeta ikastetxeko abesbatzarekin batera.

DANBORRADA

Entseguak hasiko dira

San Pedrotan danborradan ateratzeko entseguak ekainean burutuko dira. Lehenengo eguna astelehena ekainak 3 izango da eta horrela astelehen eta asteazkeneko izango dira saioak. Entsegu guztiak Sasoa-Zumaburu eskolan egingo dira. Danborrada herriko kaleetan barrena ibiliko da ekainaren 28an eta aurrez Goiegien afaria izango da urtero bezala. Honetan parte hartzeko entsegu egunetan eman beharko da izena.

MUSIKA

Sant Esteve abesbatzaren kontzertua

Sant Esteve Kataluniako abesbatzak ekainaren 1ean, arratsaldeko 20:00etan, Ama Brigitarren komentuan eskainiko du kontzertua. Honetan herriko Alboka abesbatzak hasieran bi edo hiru abesti eskainiko ditu. Sant Esteve abesbatza 1977an sortu zuen Edmon Elgström maisuak eta hamar urtez abesbatza zuzendu zuen.

Bere errepertorioan garai eta estilo ezberdinetako doinuak aurki daitezke, espainiar kanta klasikoetatik Europako abestietara (kanta italiar, ingeles, frantsesak...), musikaletako lan ezagunak (Miserableak), musika erlijioso, errenazentista, barrokoa edo baita gaur egungoa ere.

ERAKUSKETA

Brancussi-ko ikasleen lanak ikusgai

Brancussi akademiako ikasleen margolanak eta marrazkiak ikusgai daude Manuel Lekuonan ostiraletik. Erakusketaren lehen egunean asko izan ziren euren seme-alaben artelanak ikustera gerturatu ziren gurasoak. Gaztetxoek harro erakusten zituzten euren erretratuak, izan ere, hau da erakusketaren gai nagusia.

Ekainaren 5a bitartean izango dira lanak ikusgai 18:00etan 21:00etara kultur etxeko kafetegian eta erakusketa gelan.

Zubilanen instalakuntzak ezagutzen

Zubietako Usurbil GLHBI eskolan, fundizioarako espezializazio teknikoaren ikastaroan parte hartu dutenei diploma banaketa egin zitzaizkien ikasleei.

Ekitaldian parte hartu zuten institutuko zuzendariarekin batera, Pablo Barrio alkatea, Jorge Arevalo Formakuntza profesionalerako sailburuordea, Juan Ibarretxe Lanbideko lan formakuntzarako zuzendaria eta Pedro Ugartemendia Fagorretik.

Bisita Lasarte-Orian

Zubietan ikasleei diplomak banatu ostean, Lasarte-Oriako lanbide eskola ohira, gaur egun Zubilanen instalakuntzetara gerturatu ziren Jorge Arevalo izan ezik.

Guztiekin krisi garai honetan



Zubilanen instalakuntzetara bisita egin zuten ostiralean.

formakuntzak daukan garrantzia azpimarratu nahi izan zuten.

Lanbide eta erakundeek lanbide heziketa sustatzea helburu dutela adierazi zuten "izan ere langabezia dauden

pertsonek honi esker euren ezagutzak zabaldu edota berriro ditzakete". Zubilanen bertan egiten ari diren proiektuen aurrerakuntzak ikusi ahal izan zituzten bertako irakasleek gidatuta.

URTEURRENA

Palomo Linaresen 46. urteurrena

Palomo Linares Peñ Taurinak 46 urte bete ditu sortu zenetik. Urteurrena ospatzeko, 71 lagun bildu ziren Zumaburu elkartearen Julian Santos presidentea buru zutela, tartean Pablo Barrio alkatea, Ramon Uribe-Etxeberria eta Juan Luis Murua parrokoak ere izan ziren elkartearen gazteenek prestatu zuten menu goxo dastatzen. Gonbidatu gisa Serrano de Herrera, El Artista (Gros), Escuela Taurina de La Paz eta Peñ Hermanos Camino de Errenteria bertaratu ziren, guztiak Palomo Linaresen antzerako elkarteak. Bazkaldu aurretik minutuko isilunea egin zen urte hauetan guztietan zendu diren elkartearen kideen omenez.





Clown-ak ere uneoro presente egon ziren, desfileari kolorea emanaz.



Ane Huizi, Kontxu Iartzeta eta Maider Oiartzabal pozik desfilean izandako giroarekin.



Itxura ederra hartu zuen Okendo plazak, desfileko argazki guztiak eta bideoa txintxarri.info webgunean ikusgai.

Marea berdea hemen da!

Kukuka XI. Dantza eta Antzerki asteari ekitear

Desfile erraldoia antolatu dute aurtengoan ere Kukuka Dantza eta Antzerki eskolako neska-mutilek urteko asterik berezienera ekin baino lehen. Ekainaren 5etik aurrera urte osoan zehar ikasitakoa herritarrei erakusteko parada izango dute, baina asteberu honetan berdez jantzitako tropel koloretsuak hartu du herria, berde kolorea nagusi zela. Badator dantza eta antzerki astea, hamaikagarrenez!

Jendetza bildu zen larunbat arratsaldeko Kukukaren desfilean, ehundaka herritar. Eguraldi ona lagun, irakasleak, ikasleak, eskolako clown-ak, lagunak, senideak... Denek hartu zuten parte modu batera edo bestera herriko kale nagusiak zeharkatu zituen kalejira alaituan.

Kamiseta berdeak soinean jarrita, marea berdeak dantza eta koreografia artean egin

zuen ordubete inguru iraun zuen desfilea.

Behin Okendo Plazara iritsita, desfilearen bide osoa egin zuen Pirritx eta Porrotxen kamioia eskenatoki aurrean aparkatu eta Maider Oiartzabal Kukuka dantza eta antzerki eskolako irakaslearen esane jarraituz, hiru koreografia dantzatu zituzten, tartean eskolako ereserkia.

Argazki politikak ikusi ahal

izan ziren plazan, txikitxoentatik hasita helduen taldekoetaraino denek irribarre zabala zeukaten ahoan eta nabari zen gozatzen ari zirela.

Hamaikagarrenez

Aurtengoan XI. edizioa du Kukukak antolatzen duen dantza eta antzerki asteak. Ekainaren 5etik hasita hilaren 15era arte herritarrek Kukukakoen aldakak mugitu eta inprobisatzeko duten abileziak gozatzeo aukera izango dute Manuel Lekuona kultur-etxean egingo dituzten emaldiendientz.

Urte guztian zehar egindako lana islatuko da bertan eta bi aste bete-beteak izango direla uste dute antolatzaileek.

TalkaLive Donostia 2016 Lasarte-Oriaraino iritsi da

Zarauzko Perlak taldeak bere pop-rock eta punk doinuak eskaini zituen ostiral gauean, Jalgi Kafe Antzokian. TalkaLive Olatu talka Donostia 2016 ekimenaren barruko ekintza izan zen kontzertua izan zen, baina ez zuen interes berezirik sortu herritarren artean, jende gutxi bertaratu baitzen kontzertua ikustera.

Donostia 2016

Gizakion sortzeko energia eta konpartitzeko gaitasuna ikus-tarazteko plataforma da TalkaLive, Donostia 2016 kultur hiriburu izango dela eta sortutako ekimena da.

Hau gauzatzeko, dimentsio eta tipologia ezberdineko eta diziplina anitzeko programazio zabala eskaintzen du Olatu Talkaren laugarren ekitaldiak, eta Donostiaz haratago, Lasarte-Oriaraino iritsi

ziren ekintzak.

Helburua, hirian eta lurraldean jarduera eta jarrera libre eta sortzaileak bultzatzea izan zen eta testuinguru horretan eman zuen kontzertua Perlak taldeak, herritar gutxi batzuk eta Zarauztik etorritako lagunengain.

Publiko eskasia ez zen ordea aitzakia izan eta laukoteak dena eman zuen eskenatoki gainean, ondo pasatuz eta musika ona eginez gainera.

Gitarra elektrikoa, baxua, bateria eta teklatu elektronikoa nahikoa izan ziren gau hotz samarrari akorde beroak ateratzeko.

Kudai eta Niketz Abend- en

Heavy metala ere izan zuten entzungai herritarrek Abend kafe antzokian Donostiako Kudai eta Etxabarriko Niketz



Perlak talde zarauztarrak ostiral gaua berotu zuen Jalgi Kafe Antzokian,

taldeen bitartez.

Euskal Metala eta rocka egin zuten bi taldeek, Kudaiak "Harezko Dorrea" bere azken diskoa aurkeztu zuen eta

Niketz-ek errepasoa eman zion bere errepertorioari.

Kontzertu beroak izan ziren biak, Abend-eko "Metal Gau" horien arteko beste

kontzertu elektriko bat eta Lasarte-Oriaraino iritsi da. Kontzertu beroak izan ziren biak, Abend-eko "Metal Gau" horien arteko beste



Egunari amaiera emateko dantza talde guztiek elkar hartuta fandangoa, arin-arina eta kalejira dantzatu zituzten.

Dantzari gazteen trebezia

Zilarrezko ezteiak bete ditu Dantzari Txiki Egunak

Aurten XXV. urteurrena bete du Dantzari Txiki Egunak. Eguraldi bikaina lagun, sei talde aritu dira Erketzekin batera herriko kaleak alaituz, Faltzesko Makaia, Urretxuko Lurra D.T., Errenleriako Ereintza D.T., Andoingo Urki dantza taldea eta Lasarte-Oriako Kukuka antzerki eta dantza eskolako txikiak izan dituzte Erketzekoek alboan egun berezi honetan. Guztien artean giro ezinhobea sortu dute, igande goizean herriko plaza ezberdinetan aritu dira dantzari, eguerdian sabelak bete dituzte herriko lau elkartetan eta arratsaldean Okendon emaldi ederra eskaini dute.

Makil dantza, Arku dantza, Inauterriak, Itsas dantza, Sardineras... Denetariko euskal

dantza tradizionalaz gozatze-ko aukera izan zuten herritarrek igandean. Guztira 150 bat ume aritu ziren gorputzak

astintzen gara bateko soineko, alpagata eta jantzi koloretsuz apainduta.

Balorazioa eta eskerrak

Antolatzaileak gustura mintzo ziren igande arratsaldean, taldeak laguntzaileak eta publikoa "ezinhobeto" aritu zela adierazi zuten eta bereziki eskerrak eman nahi izan zizkieten Saustatxo, Xirimiri, Semblante Andaluz eta Arrieskal elkarteei emandako tratu eta laguntzagatik eta baita Udalari ere.



Bisitari bakoitzari argazki gisako oroigarria eman zien Erketz Dantza Taldeak.

Argazki galeria eta bideoa txintxarri.info webgunean

Dantzari Txikiren 25. urteurrena

1988an, berriro ere dantzak indarra hartu zuen eta herri desberdinetako taldeak hitz egiten hasi ziren herri artean harremana eta zirkuitu bat sortzeko. Eta handik eta hemendik, indarrak batu eta Dantzari Txiki eguna hainbat herrietan sortu zen," azaldu digute Erketz EDT-ko Ruben Arranz, Cristina Garcia eta Asier Balerdik.

"Batuetan mantendu da besteetan ez, hori taldeak bezala da. Eta hemen mantendu den jaialdia da, urte batuetan jende gehiagorekin, besteetan gutxiago," aipatu du Rubenek.

Hala ere, 4.000 edo 5.000 haur izan dira Dantzari Txikin parte hartzen. "Hasieran ez dut gogoratzen zenbat talde ziren, baina hamar bat urtetan sei talde ziren etorzen zirenak etaba-

koitzak 25 bat haur ekartzen zituzten," adierazi digu.

Lagunak egin

Dantzari Txikiak zure zaletasun berdina duten beste herrietako haurrak ezagutze-ko aukera ematen duela azaldu digu Cristina Garcia, "lagunak egiten dituzte. Gu ere txikitik ibili gara eta urteak pasa ondoren, berriro bertara joan eta "nik zu duela lau urte hartu zintudan etxean" esaten dizu horrek".

"Guk primeran pasatzen genuen, beste umeekin jolasten eta harremanak egiten. Pena ematen digu guri ez parte hartzea," azpimarratu du Crsitinak.

Dantzak ezagutu

Era berean, Dantzari Txiki beste herrietako dantzak

ikusteko aukera ere ematen duela adierazi digute. "Adibidez, Sorgin dantza Lasarte-Oriako delata. Eta gero gu Andoain, Urretxu edo Faltzesera goazenean, diferentzia handiagoa delata, ikusten duzu beste zer egiten dute. Ikusten duzu haur modu batera egiten dute eta hau beste era honetara".

"Modu asko daude. Ez da dantza bakarra eta hau horrela egiten da. Modu asko dago egiteko eta talde bakoitzak du berea. Azkenean desberdintasunak ikusten dituzu eta zerbait gustuko baduzu, hori egiten saiatuko zara. Politia da besteek egiten dutena ikustea," onartu dute.

Beste Dantzari Txikiak

Eta aipatu legez, Lasarte-Oriakoaz gain, beste herrietan ere ospatzen da Dantzari



Auzo desberdinak alaitzen dituzten gaztetxoek. Argazkian, 1997ko Dantzari Txiki eguna.

Txiki jaialdia, horregatik ekainaren 2an Andoain izango dira eta 9an Faltzesera.

"Lehenengo aldia da Faltzesek Dantzari Txikia antolatzen duena eta laguntzera goaz".

Era berean, Erketz Txiki-ko neska-mutilek Lasarte-Orian egiten den ekitaldian ere parte hartuko dutela

aurreratu digute, "Erketz EDT eta Erketzeko lagunak taldeekin batera dantzatzeko dute. Aurten ekainaren 21an izango da, ostirala".

Haurrentzat onuragarria dela azaldu digute, "batetik handiekin dantzatzeko dira eta bestetik, gurasoek egin duten lana ikustea motibazioa da haientzat".

LABURRAK.-



Gipuzkoako txapelketan domina eskuratu duten Biyak Bat elkarteko kideak.

Biyak Baten Gipuzkoako txapelketak briskan

Lasarte-Oriako Biyak Bat elkarteko Concepcion Prieto eta Josefa Arrate bikotea da Gipuzkoako Erretiratuen elkarteek antolatzen duten txapelketako briskako irabazlea. Bikoteak maiatzaren 16an, jokatu zuen finala, Altza auzoko Nao-Etxe elkartearen.

Baina ez da hau Lasarte-Oriako elkarteak lortu zuen sari bakarra izan. Izan ere, lau erregetako musean Manuel Belartietia eta Pedro Martinezek zilarrezko postua eskuratu zuten, baita Angel Ramak chinchonean ere.

Landaberri ikastolako atletak Gipuzkoako txapelketan

Maiatzaren 19an, Ordizian izan zen alebinen eskolarteko txapelketan Landaberri ikastolako lehengo postua eskurtatu zuten.



Narrea Furundarena, Jone Eizmendi, Nerea Eugi, Aiora Belartietia, Ainhoa Heredero, Olatz Bardajik osatutako taldeak lan ederrea egin zuten. Azpimarratze-koak dira Nerea Eugik 60 m. hesi-lasterketan egindako 1. postua, Ainhoa Herederok luzera jauzian lortutako garaipena edo Jone Eizmendik 1000 m. lasterketan egindako lana, 4. postua.

Bestalde, entrenatzaileek azaldu digutenez, 4x60 m-ko errebelen emaitzaren aurka egingo dute, "gure taldearek hamaikagarren denbora eman diote, baina Landaberriko taldeak lehenengo denbora egin zuela uste dugu. Bideok ikusi behar dira eta emaitzaren zain gaude. Horrela izango balitz errelebo-etako domina ere eskuratuko genuke".

LOKEko gimnastako taldeak finaleran

Gipuzkoako txapelketetako finaleran dauden LOKEko gimnastika taldeak. Asteburu honetan kadete eta jubenil mailako taldeak lehiatu dira. Aldizkari erredakzioa itxi baino lehen ez dugu berririk izan.

Infantilek, berriz, maiatzaren 11an, izan zuten haien mailako txapelketa eta zazpigarren izan ziren sailkapen orokorrean, baina eremu honetako hirugarren postua eskuratu zutela aipatu digu Maite Rueda entrenatzaileak.



Infantil taldeak uztaikekin egin zuen lan Gipuzkoako txapelketan.

Alebinen kirol sustapen kanpaina amaitu da

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak garatuta, Michelingo Kirol Gunearen Atletismoko Moduluan saio berezia egin zen larunbatean Urte osoan zehar urpekaritza, futbola, txirrindularitza... eta beste hainbat kirol praktikatu dituzte. Amaieran, Karlos Altuna kirol teknikariak eta Taxio Arrizabalaga zinegotziak kirol materiala zozketatu zuten: bizikleta bat, kometa, eta patinak esku artean hartuta, pozik joan ziren saridunak etxera.



IGERIKETA.-

Villamediana eta Ibarгойen txapelketan

Alebin mailako Gipuzkoako txapelketan primeran

Buruntzaldea IKT-ko igerilari gazteak Gipuzkoako Eskolarteko Alebinen Txapelketan parte hartu zuten maiatzaren 18 eta 19an eta 2. urteko alebinek emaitza bikainak lortu zituzten, 3 urre, zilar bat, 3 brontze eta Espainiako txapelketarako marka gutxieneko bat.



Buruntzaldea IKT-ko 2. urteko alebinek lortutako dominekin. BURUNTZALDEA IKT

TXINTXARRI

Lehenengo asteburuan, Buruntzaldea IKT-ko alebin mailako gaztetxoek Gipuzkoako txapelketa izan zuten Legazpian.

Larunbatean, 2. urteko alebinen lehiaketa izan zen eta emaitza paregabeak lortu zituzten.

Nahia Jie Villamedianak 200 m. bizkar eta 100 m. bizkar probetan urrea lortu zuten, Gipuzkoako Txapelketan izatea lortuz.

Gainera, Nahia Jie-k 100 bizkarreko proban, uztailean Manresan izango den Alebinen Espainiako Txapelketarako gutxieneko marka lortu zuten.

Jon Ibarгойen 100 m. libre proban nagusi izan zen eta 200 m. libreetan hirugarren izan zen. Jonek ere marka pertsonalak lortu zituen bietan.

Bestetik, Leire Carcedo-k zilarra lortu zuen 100 estiloak proban. Eta egindako beste proban, 100 m. bular proban, Leire bosgarren izan zen. Bietan bere markak hobetzea lortu zuen Leirek.

Beñat Alkorta, berriz, brontzea izan zen igeri egindako bi probetan, 200 m. estiloak eta bigarrenik 200 m. tximeleta.

Eta Nora Irazustak 200 m. estiloak eta 100 m. estiloak probetan bere markak hobetu zituen.

Era honetara, Nahia Jie Villamediana, Leire Carcedo eta Jon Ibarгойen asteburu honetan jokatu diren Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetarako txartela lortu zuten.

Txikiak ere ederki

Bestalde, igandean 2002 urteko neska-mutilak eta 2001eko mutilak lehiatu ziren. Guztiak oso txukun aritu ziren eta bere

markak hobetu zituzten. Ez zuten sailkapen orokorreko lehen hiru postuetan egotea lortu baina "egindako esfortzu eta hobekuntzeekin oso gustura ateratu ginen".

Izena emate epea

Buruntzaldea IKT datorren urteko denboraldia prestatzen ari da eta hori dela eta datorren urterako izen emate epea zabaldu du.

Informazio gehiago eskuratu nahiez gero, ordutegiak, entrenamendu plaza... www.buruntzaldeaikt.blogspot.com orrialdean aurki dezakezue.

Izena emate epea web orrialdean bertan, 696 506 632 telefonora deitu edo astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara Lasarte-Oriako igerilekura hurbildu behar dira interesatuak.

Inskripzioa egiteko azken eguna ekainaren 21a izango da.

TXIRRINDULARITZA.-

Asier Pozo Gipuzkoako txapelketan

Buruntzazpi Txirrindularitza eskolako gazteek asteburu lasterketaz-lasterketa dabilta. Lehenengo asteburuan, maiatzaren 18an, eskolako txikienek infantil eta alebin mailako Gipuzkoako txapelketa izan zuten eta urrezko domina bat eskuratu zuten.

Zumaia Korta industria-gunean, 150 txirrindulari inguru izan zen eguraldi latzari aurre egin behar izan zioten.

Alebin mailan, Buruntzazpi eskolako Asier Pozo izan zen 40 txirrindulari gazteen artean azkarrena eta Gipuzkoako txapela eskuratu zuten.

Pozoz gain, JOCC talde hernaniarran dabilen Gaizka Buganda ere izan zen lehiatzailea.



Buruntzazpi txirrindularitza eskolako Asier Pozo podiumean.

GTXE

Infantiletan, berriz, ez zen zorterik izan Oier Larrea, Xabier Elosegui eta Luken Carbayadak parte hartu zuten, 8., 9. eta 33. postuan amaitu zuten lasterketa hurrenez hurren.

Bestalde, jubenil eta kadeteek Ataun eta Legorretan izan zituzten lasterketak. Buruntzazpiko eta herrikoen artean, Jon Ander Unanue eta Iñigo Altuna izan ziren hobereenak.

Agenda

Asteartea 28- igandea 02, Zabaleta auzoa



Teresa sorgina berriro Lasarte-Orian

Urtero legez, uda gertu dugu eta Zabale-tako lagunek auzoko jaiak antolatu dituzte. "Teresa sorgina" ostiralean etorriko den arren, asteartetik aurrera hainbat ekintza izango da etxeko txikiengatik. Asteburuan berriz adin guztientzako egitarau zabala dute.

Asteartea 28

18:00etan, haurren jolasak
20:00etan, janponiar bonbak

Asteazkena 29

18:00etan, antzerkia
19:30etan, oparien zozketa
20:00etan, janponiar bonbak

Ostirala 31

18:00etan, Kukukakoen antzerkia.
Ondoren, txokolatada
18:30ean, Gazteklubeko bingoa
19:00etan, "Teresa sorgina"-ren jaitsiera eta batukada
19:30ean, Sorgin dantza herrikoa
20:00etan, Erromeria: "Itzartu"
22:00etan, Xumela koruaren emanaldia

23:00etan, Kukuka dantza garaikidea
24:00etan, Erromeria: "Trikihots"

Larunbata 1

09:00etan, Diana
11:30etan, Joxe Miguel Aranzadiren oroimenez mus txapelketa
15:30ean, Joxe Miguel Aranzadiren oroimenez mus txapelketa
17:00etan, gaztetxoaren herri kirolak
18:30ean, Rafafa Magoaren saioa
19:30ean, Jalgune elkarte kideek "Sagardotegia" antzezlan eskainiko dute
20:00etan, Bertso saioa: Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Amaia Agirre. Gai jartzaile: Unai Muñoa

24:00etan, Gazte rock gaua: "Makulu Ken" eta "The Garax"

Igandea 2 - Denok baseritarrez

09:00etan, Diana eta auzo garbiketa txapelketa
11:00etan, Kukuka euskal dantza saioa
11:00etan, tortila lehiaketa
12:30ean, Herri kirolak Telleria Anaiek
13:15ean, proba mixta nagusia
14:30ean, Herri bazkaria
16:30ean, Erromeria
17:00etan, Laiotz taldearen erromeria
18:00etan, toka txapelketa
20:30ean, "Teresa sorgina"-ren agurra eta azken traka

Lasarte-Oria

Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUA
Larunbata 01, 20:00etan

Kataluniako Sant Esteve abesbatzaren kontzertuaz gozatzeko aukera. Alboka abesbatzaren 25. urteurreneko ekimena da.

MENDI KAFE-ROCK

Larunbata 01, 20:00etan

Portobello project taldeak The Who taldearen omenezko kontzertua eskainiko du. Kultur Kale Zikloko ekintza da.

DONEGAL TABERNA

Osteguna 06, 23:00etan

Nia Moore King & The Bluebirds-en kontzertuan jazz, blues eta soul doinuez gozatu ahalgo da. Kultur Kale Zikloko ekintza.

Antzerki eta dantza

MANUEL LEKUNA KULTUR-ETXEA
Asteazkena 5, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. DBH-mailako gazteek "Erruzkiñe", dantza garaikidea eta "Alizia bitxikerien munduan" lanak aurkeztuko dituzte.

Ostirala 6, 22:30ean

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. Helduen taldeak "Haize Burrundada" lana eskainiko du eta gazteen taldeak dantza garaikide emanaldia.



Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Asteartea 7-Ostirala 31

Estudio del Pintor ikasleen olioz egin-

dako margolanak ikusgai izango dira.

MANUEL LEKUNA KULTUR-ETXEA

Ostirala 24-Asteazkena 05

Ion Martinez "Txiki"-ren "Mil a zien, baietz parrez lehertu!" umorezko bakarrizketaz gozatzeko aukera izango da. Kultur Kale Zikloko ekintza. Euskaraz. Doan.

Bakarrizketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 31, 22:30ean

Ion Martinez "Txiki"-ren "Mil a zien, baietz parrez lehertu!" umorezko bakarrizketaz gozatzeko aukera izango da. Kultur Kale Zikloko ekintza. Euskaraz. Doan.

Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol aterateak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur maiatzaren 27an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, maiatzaren 31an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ordulari bat, bi betaurreko graduatu, txandal baten txaketa, bi mugikor, bi pultsera eta eraztun bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbiltzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Alboka Abesbatzaren XV. urteurrena entseguak eta afaria

Alboka Abesbatzak abesbatzeko kide ohie eta Alboka Txiki, zein Zandategi

abesbatzeko abeslari izandako herritarrei gonbita egiten die, ekainaren 22an eskainiko duen kontzertuan parte hartzea.

Honetarako, "Ilunabarra" eta "Kantuz" lanak landuko dira ekainaren 7 eta 11ean, 20:00etatik aurrera, Zumaburuko Arantzazuko amaren azpiko lokalean.

Era berean, abesbatzak bazkide eta abeslari ohiak gonbidatu nahi ditu ekainaren 22an, kontzertuaren ostean egingo den afarira. Aurrez izena eman behar da 678 382 663 telefono zenbakian ekainaren 12a baino lehen.

Soka dantza entseguak

Erketz EDT-k San Juan suan dantzatzeko den soka-dantzako entseguak hasi ditu. Aurretik asteartetan izango dira entsegu irekiak. Horrela maiatzaren 28an, ekainak 4, 11 eta 18an izango dira hurrengoak.

Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokalean egingo dira guztiak 20:30ean.

Erketz EDT-k gonbita egiten die herritarrei honetan parte hartzeko.

Mus txapelketako afaria Lasartearra elkarteak

Lasartearra elkarteak antolatzen duen XXXVI. Mus txapelketako afaria ekainaren 1ean, larunbata, izango da. Ohikoa den legez, elkarte kide eta lagunek parte hartu ahalgo dute afari honetan.

Afari gozoa dastatu nahi duten herritarrek maiatzaren 28ra arte, egun hau barne, dute Lasartearra elkarte egoitzan, Erribera kalea 10 atzea, izena emateko.

San Pedro jaietako kale kontzertuetan parte hartu

Lasarte-Oriako San Pedro jaiak direla eta, Sorgin Jaietako taldea kale kontzertuak antolatuko ditu, ekainaren 28an arratsaldean.

Ekintza honen xedea, arratsalde horretan herria herritarren musikaz edo antzezlanaz girotea da, parte hartzea sustatzeaz gain, herritarren talentua ere ezagutzera eman nahi du.

Hori guztia dela eta, herritar guztiei deialdia egin nahi die taldeak, euren ahotsak eta instrumentuak hartu eta parte hartzea animatzeko.

Interesatuak jar daitezela harremanetan, honako helbide elektronikotara sorginjaiak@gmail.com-era mezua bidalitzeko.

Islada Ezkutatuak taldeak testigantzak behar ditu

Maiatzaren 22an 75 urte beteko dira Ezkaba mendian, Iruña inguruan dagoen San Cristobal fuertetik 800 presoren ihesaldia gertatu zela.

Islada Ezkutatuak taldea jakinaren gainean dago presondegi horretan lasarteoriatar bat baino gehiagok jasan behar izan zuela hango bizimodu latza.

Oroimenaren alde lan egiten ari den taldeak dei egiten die presondegi horretan egon ziren senitarteko edo ezagunen bat duten herritarrei haiekin harremanetan jar daitezela. Asmoa kasuak ezagutu eta zerrenda bat osatzea da. Lasarte-Orian denboraldi bat bitzikotako edo eskualdean bitzikotako pertsonen testigantzak ere jasoko dituzte.

Honetarako 695 756 565 zenbakira deitu behar dute.

Jaien garaiari hasiera, Zabaleta auzoan

Ostiraletik igandera arte, bertso saioa, erromeriak eta rock kontzertua, besteak beste

Zabaleta auzoa festetan da igandera bitartean. Jai batzordeak egitarau zabala antolatu du, "auzolanean", urtero bezala. Asteazkenetik iragarri dituzte eta, asteburuari begira, badira zenbait ekitaldi aipagarri: ostiralean, 19:00etan, festen hasiera Dinbi Banda batukadarekin, Xumelako abeslariarekin eta Kukukako dantzariarekin eta, ondoren, erromeria. Larunbatean, 20:00etan, lau neska bertsoan eta, gauerditik aurrera, rock kontzertua. Igandean euskal jai, herri bazkaria eta erromeria.



Dinbi Bandarekin hasiko dira ostiralean Zabaleta auzoko jaiak. Igandeko euskal jai bitartean musika eta giro ona izango dira nagusi.

Asteartean hasi eta igandera arte luzatuko dira 2013ko Zabaleta auzoko jaiak. Zabaleta Auzolaneko jai batzordeak ahalgin handia egin du aruten ere, eta erromeriak antolatu ditu ostiral iluntzean, gauean eta igande arratsaldean.

Larunbatean aldiz, giro bikaina izango da. Batetik, lau neska arituko dira bertsoan arratsaldeko 20:00etatik aurrera: Maialen Lujanbio txapel-duna, Ane Labaka, Amaia Agirre eta Alaia Martin. Gaiak Unai Muñak jarriko ditu. Eta gauean gazteentzako rock kontzertuan herriko bi taldek

joko dute, "Makulu Ken" eta "The Garax".

Haurrak asteazkenetik

Astearte eta asteazkenean haurrentzat joko eta antzerkia antolatu dituzte 18:00etatik aurrera eta 20:00etan japoniar bonbak jaurtiko dira. Asteartean jolasteko, kamiseta zuria-ekin joateko eskatzen zaie haurrei. Asteazkenean antzerkia izango da, 18:00etan, eta oparienez zozketa, 19:30ean.

Ostiralean, 19:00etan hasiko da festa giroa. Dinbi Bandaren laguntzarekin, Teresa sorginaren jaitziera egingo da, 19:30ean sorgin dantza herri-

koa eta 20:00etan erromeria "Itzartu" taldearekin. Aurretik antzerkia eta txokolatada izango dira haurrentzat, 18:00etan hasita. Ostiral gaueko eskaintza hirukoitza da: 22:00etan Xumelako abeslariarekin kantatuko du, 23:00etan Kukukako partaideek dantza garaikidea egingo dute eta 24:00etan hasiko da "Trikihots" taldearekin erromeria.

Larunbat eta igandeko egitaraua ere bete bete da. Joxe Migel Aranzadi eskoba eta mus txapelketak goizeko 11:30ean

eta arratsaldeko 15:30ean jokatuko dira, hurrenez hurren; 17:00etan hasiko dira gazte-txoentzat herri kirolak; 18:30ean "Rafafa" magoaren ikuskizuna; 19:30ean "Sagar-dotegia" Jalguneko kideen antzezlan; 20:00etan aipatutako Lujanbio, Labaka, Agirre eta Martin-en bertso saioa; eta, azkenik, gauerditik goizaldera arte joko dute "Makulu Ken" eta "The Garax" taldeek.

Igandean euskal jai egingo dute auzoan eta Zabaletako jai

batzordeak baserriarrez janzteko eskatu du. 9:00etan diana eta auzo garbiketa txapelketa iragarri dute; 11:00etan euskal dantza saioa Kukuka taldearekin, eta tortila lehiaketaren hasiera; 12:30ean herri kirolak Telleria anaiekin; 13:15ean proba mistoa; 14:30ean herri bazkaria, 16:30etatik aurrera erromeria, Laiotz taldearekin; eta 18:00etan toka txapelketa. Azken traka eta Teresa Sorginari 2014ra arte agurra, arratsaldeko 20:30ean, izango dira.



Zuregandik hurbil

Etorri gure denda herrira,
Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)








Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

Jarraitu hemen, www.facebook.com/VentanasAlcar

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa - (Lehenko Doble J)

TAILERRA
Ibaiondo, 4 erdisotua 5-A
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa

- Leihoak
- Ateak
- Itxiturak
- Armariuak
- Barandak
- Portalak
- Erakusleihoak
- Kontraleiho landatarrak
- Kontraleihoak lama finko eta orientagarria
- Pertsianak
- Saretak
- Sabai-Leihoak
- Toldoak
- Errezel-Hormak
- Beirateria orokorrean
- Dutzako manparak
- Sarrera ate korazatuak
- Konposite materialekin horma estaldurak
- Kartel komertzialen instalakuntza
- Gortinak

www.facebook.com/VentanasAlcar



Jarrai gaitzazu Facebooken!
gure jarraitzaile artean,
laister hasiko gara opariak banatzen.

Me gusta

PVC, aluminio eta zubi termikoaren haustura, lantzen ditugu